DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Zk. / Nº 2019/0627

**EBAZPENA**

Olaia Albizu Gallastegui Alkateordeak, 2016ko ekainaren 1eko alkate-dekretu bidez onarturiko delegazioaren babesean, honako hau erabaki du 80/2019/DL zk.dun espedientearen inguruan

Jarraian aipatzen den programa erregulatzen duen araudia dela-eta, eta Euskara, Kultura eta Hezkuntza informazio batzordeko presidentearen proposamenari ekinez, honako hau da programaren testua:

**DIRULAGUNTZA DEIALDIA EZOHIKO KULTUR EKIMENAK GARATZEKO 2019. URTEAN**

**1. Artikulua. Xedea**

Ebazpen honen xedea da Durangoko Udalaren dirulaguntzen oinarriak ezartzea, norgehiagoka erregimenean, 2019. urtean zehar, Durango udalerriaren esparruan "ezohiko kultur ekimenak" egingo dituzten entitateei diru laguntzak emateko. Eta hau guztia, kontuan izanik Durangoko Udalaren diru-laguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 8. artikuluak ezartzen duena.

"Ezohiko kultur ekimenak" diogunean hauxe ulertu behar da: irabazi asmorik gabeko entitateei ustekabean sortzen zaizkien kultur ekimenak, betiere Euskera, Kultura eta Hezkuntza Batzordeak hola ikusiz gero.

Diruz lagunduko dena da ezohiko kultur ekimenak garatzea, baldin eta Durangoko Udalak edo bere erakunde autonomoak egiten dituzten ekimenen osagarri badira edo ordezkatzen badituzte eta, betiere, deialdi honetan ezartzen diren baldintzak kontuan

**RESOLUCIÓN**

Doña Olaia Albizu Gallastegui, como Teniente de Alcaldesa delegada, en virtud de la delegación acordada por la Alcaldesa mediante decreto de fecha 1 de junio de 2016, ha dispuesto con relación al expediente 80/2019/DL , lo siguiente

En relación con la normativa que regula el programa referido a continuación y a propuesta del Presidente de la Comisión informativa de Euskera, Cultura y Educación y cuyo texto íntegro es:

**CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES PARA LA REALIZACION DE ACTIVIDADES CULTURALES EXTRAORDINARIAS EN EL AÑO 2019**

**Artículo 1. Objeto**

Es objeto de esta convocatoria el establecimiento de las bases de las subvenciones convocadas en régimen de concurrencia competitiva por el Ayuntamiento de Durango para la realización de "actividades culturales extraordinarias" durante el año 2019 dentro del ámbito municipal de Durango, con el contenido preceptivo que establece el artículo 8 de la Ordenanza reguladora de subvenciones y ayudas del Ayuntamiento de Durango.

Se entiende por actividad cultural extraordinaria la no prevista por entidades culturales sin ánimo de lucro, y apreciada como tal por la Comisión de Euskera, Cultura y Educación.

El concepto subvencionable lo constituye el efectivo desarrollo de las actuaciones culturales extraordinarias, y que complementen o suplan las llevadas a cabo por el Ayuntamiento de Durango o sus Organismos Autónomos, en las condiciones



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 12433161730307742674
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

izanda.

Halaber, ez dira aintzat hartuko beste udal partida edo deialdietatik dirulaguntza jasotzen duten ekintzak.

**2. Artikulua. Onuradunak**

Dirulaguntza hauen subjektu onuradunak honako hauek izan daitezke: irabazi asmorik gabeko Durangoko entitateak izena emanda badaude Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan.

Halaber, Durangokoak ez diren entitateek ere eskatu dezakete dirulaguntza, baldin eta ezohiko kultur ekimenen bat burutzen badute Durangon eta izena emanda badaude Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan.

Merkatal enpresak deialdi honetatik kanpo geratuko dira, nahiz eta euren jarduerak zerikusia izan kulturaren sustapenarekin.

**3. Artikulua. Dokumentazioa aurkezteko lekua**

Eskariak Udaleko erregistro nagusian aurkeztu behar dira Udalak horretarako jarriko dituen eskari-orrietan. Halaber, 2015eko urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozeduraren 39/2015 Legearen 16.4 artikuluak aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal dira.

Eskariari dokumentazio hau erantsi beharko zaio:

a) Dirulaguntza eskari normalizatua.

Aurreko urteetan diru-laguntza eskatu ez zuten entitateek, edo bere datuetan aldaketak izan dituztenek, ondorengo agiriak ere aurkeztu behar dituzte:

b) Entitate eskatzailearen estatutuak.

c) Eusko Jaurlaritzako Elkarte eta Entitateen Erregistroaren inskripzio-

determinadas por la presente convocatoria.

Asimismo, no se tomarán en cuenta aquellas actividades subvencionadas desde otras partidas o convocatorias municipales.

**Artículo 2. Beneficiarios**

Podrán ser beneficiarias de las subvenciones las entidades sin ánimo de lucro de Durango que estén inscritas en el Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco.

Podrán también optar aquellas entidades, que no siendo de Durango, realicen en dicha localidad alguna actividad cultural extraordinaria y estén inscritas en el Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco.

Quedan excluidas las empresas mercantiles, aunque su actividad esté relacionada con las actividades culturales.

**Artículo 3. Lugar y presentación de la documentación**

Las solicitudes se deberán presentar en el registro general del Ayuntamiento de Durango o en cualquiera de los lugares a los que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en los impresos que a tal efecto dispondrá el Ayuntamiento.

La documentación adjunta que se debe acompañar a la solicitud es la siguiente:

a) Solicitud de subvención normalizada.

Además, las entidades que no hubieran solicitado subvención en años anteriores o cuyos datos hubieran cambiado, deberán aportar los siguientes documentos:

b) Estatutos de la Entidad solicitante.

c) Certificado de inscripción en el Registro de Asociaciones y Entidades



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 12433161730307742674
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

egiaztagiria.

d) Identifikazio Fiskalaren Kodea.

3.000 eurotik beherako diru-laguntzak jasotzeko, erakundearen ordezkari baten zinpeko aitorpena, erakundeak bere zerga betebeharrak, Bizkaiko Foru Ogasunarekin eta Gizarte Asegurantzarekin egunean dituela adierazten duena. Bestalde, 3.000 eurotik gorako diru-laguntzetarako, egoera hori egiaztatzen duten agiriak.

Eskariak aurkezteko azkeneko egunean erakundeak ez du zorrik izango Durangoko Udalarekin, nahiz eta honi dagokionez, ez den egiaztagiririk aurkeztu behar.

Edozein kasutan, aurreikusitako ekimenari dagokion dokumentazioaz gain, entitate eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal zaie aurkeztutako ekimena behar bezala baloratu ahal izateko.

**4. Artikulua. Epeak**

Dirulaguntza eskariak aurkezteko epemuga 2019ko azaroaren 15a izango da.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar laneguneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan. Halaber, jakinaraziko zaio, hala egiten ez badu, eskarian atzera egindakotzat joko dela, eta hala ebatziko da 2015eko urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozeduraren 39/2015 Legearen 68. artikuluak aurreikusten dituen terminoen arabera eta, aintzat hartuta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23.5 artikuluak ezartzen duena.

**5. Artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa**

del Gobierno Vasco.

d) Código de Identificación fiscal.

Para subvenciones inferiores a 3.000 euros, declaración responsable de la persona representante de la entidad de que la misma se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias como la Hacienda Foral de Bizkaia, así como la Seguridad Social. Para subvenciones superiores a 3.000 euros, documentos acreditativos de tal circunstancia.

A fecha de último día para la presentación de solicitudes la entidad deberá estar al corriente de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Durango, si bien no es necesario aportar documentación justificativa.

En todo caso, además de la documentación solicitada relativa a la actividad contemplada se podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta información complementaria se estime necesaria en orden a la valoración de la actividad presentada.

**Artículo 4. Plazos**

Las solicitudes deberán presentarse con fecha límite el 15 de noviembre de 2019.

Cuando se observe que la documentación presentada es incompleta o no reúne los requisitos exigidos en las presentes bases, se requerirá a la persona interesada para que en un plazo de diez días hábiles subsane los defectos formales o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido en su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 68. de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, así como en lo dispuesto en el artículo 23.5 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

**Artículo 5. Cuantía de la subvención**



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 12433161730307742674
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

Ezohiko kultur ekimenen artean banatuko den gehienezko zenbatekoa SEI MILA (6.000) eurokoa da. Gastua 61.3300.48101 aurrekontu-partidaren kargura joango da.

La cantidad máxima a distribuir entre las actuaciones extraordinarias de cultura será de SEIS MIL EUROS (6.000) euros, realizándose el gasto con cargo a la partida presupuestaria 61.3300.48101.

Aipatutako zenbateko hau igo egin daiteke Kultura eta Hezkuntza sailaren beste dirulaguntza-programa batzuk burutu ondoren agortu gabe geratu diren diru-partiden kontura, edo diru-laguntzak ebatzi aurretik Udalak egin ditzakeen aurrekontu-aldarazpenen ondorioz. Halakorik gertatzen bada, berariazko ebazpenaren bitartez jakinaraziko da.

Dicho importe se puede ver incrementado en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Área de Cultura y Educación, o de modificaciones presupuestarias que puedan aprobarse con carácter previo a la resolución de las ayudas. De producirse dicha circunstancia se dará publicidad mediante la oportuna resolución.

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira dena delako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Edozein modutan, ez da gain finantzaketarik egongo, eta hala gertatuko balitz, dirulaguntza murriztu egingo litzateke. Gain finantzaketa gerora emango balitz, eta dirua itzultzeko beharrizanen bat baino gehiago izanez gero, dena delako erakunde onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Durangoko Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

Estas subvenciones serán compatibles con cualesquiera otras, concedidas por Organismos Públicos o privados para el mismo objeto, sin que en ningún caso pueda existir sobrefinanciación, procediendo en tal caso la reducción de la subvención a conceder. Caso de que con posterioridad se generase una sobrefinanciación de la actividad y concurriese más de una obligación de reintegro por sobrefinanciación, la entidad beneficiaria reintegrará la cantidad proporcional que le corresponda en función de la aportación sobre el total que haya efectuado el Ayuntamiento de Durango.

**6. Artikulua. Baloratzeko irizpideak**

Dirulaguntzak emateko eta zenbatekoa zehazteko irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Egitarauaren kalitatea eta interesa (30 puntu, gehienez ere).

b) Elkartearen eta programaren ezaugarriak eta transzendentzia Durangoko errealitate kulturalean (20 puntu, gehienez ere).

c) Bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa (20 puntu, gehienez ere).

d) Euskararen erabilera (10 puntu, gehienez).

**Artículo 6. Criterios de valoración**

Para la concesión de la subvención y la determinación del importe se valorarán de forma ponderada los siguientes aspectos:

a) Calidad e interés del programa (hasta 30 puntos).

b) Características y trascendencia de la asociación y programa en el panorama cultural de Durango (hasta 20 puntos).

c) Viabilidad técnica y económica (hasta 20 puntos).

d) Utilización del euskera (hasta 10 puntos).



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 12433161730307742674
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

e) Programetako elementu hauen integrazio maila: aukera-berdintasuna, kultur aniztasuna, gabezia fisikoa edo psikikoa daukaten pertsonak (10 puntu, gehienez ere).

f) Udalak prestaturiko ekimenetarako antolaketa-lanetan eta udal kontseiluetan parte hartzeagatik, beste elkarte batzuekin elkarlana, gehienez ere, 10 puntu.

Dirulaguntzen gehieneko zenbatekoak ezingo du eskatzaileak aurkeztutako gastu-kopuru osoaren aurrekontuaren %75a gainditu, betiere, egin beharreko egokitzapenak egin ostean. Portzentaje honi balorazioko puntuak aplikatuko zaizkio dirulaguntzaren azken zenbatekoa erabakitzeko. Dirulaguntza lortzeko gutxienez 20 puntu lortu beharko dira.

Aurreko eragiketa egin ostean, banatuko diren dirulaguntzen kopuruak 6.000 euroko diru-aurreikuspena gainditzen badu, bigarren eragiketa bat egingo da, eta bertan, gutxitu egingo dira banatu beharreko dirulaguntza guztiak proportzio berean.

Edozein modutan, proiektu bakoitzeko gehieneko dirulaguntzak ez du 2.500 euro gaindituko.

**7. Artikulua. Instrukzioa eta ebazpena**

Sail eskudunaren informe teknikoa aztertu ostean, eta Euskara, Kultura eta Hezkuntza argibide batzordearen proposamenari ekinez, eskariak alkateordearen ebazpen bidez egingo dira, gehienez ere, hiru hilabeteko epean eskaria aurkeztu izan den egunetik zenbatuta.

Aipatutako epea igaro ostean ebazpenik jaso ezik, ulertu behar da eskaria gaitzetsi egin dela, gerora egin daitekeen ebazpenaren kaltetan izan gabe.

e) Nivel de integración en los programas de diferentes elementos: igualdad de oportunidades, multiculturalidad, personas con discapacidad (hasta 10 puntos).

f) Participación en actividades diseñadas por el Ayuntamiento y en consejos municipales y colaboración con otras asociaciones (hasta 10 puntos).

El importe máximo de subvención a solicitar no podrá superar el 75% del presupuesto total presentado, una vez revisado y realizados los correspondientes ajustes. A dicho porcentaje se le aplicarán los puntos obtenidos en la valoración con el fin de determinar la cuantía final de la subvención. El mínimo de puntos para obtener subvención será de 20.

Si tras la operación anterior, el importe total de las subvenciones a conceder superara la previsión presupuestaria de 6.000 euros, en una segunda operación se reducirán las cantidades a conceder, todas ellas en la misma proporción.

En cualquier caso, la subvención máxima por cada uno de los proyectos presentados no podrá exceder de 2.500 euros.

**Artículo 7. Instrucción y resolución**

Las solicitudes serán resueltas mediante Decreto del teniente de Alcalde, a propuesta de la Comisión Informativa de Cultura, Euskera y Educación, previo informe técnico del Área de Cultura, en el plazo máximo de tres meses a contar desde la fecha de presentación de la solicitud dentro del plazo determinado en la presente convocatoria.

En el caso de que transcurrido dicho plazo, no conste resolución expresa de la solicitud, se entenderá que la misma ha sido denegada, sin perjuicio de que con posterioridad sea resuelta de forma expresa.



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 12433161730307742674
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

**8. Artikulua. Dirulaguntza ordaintzea**

Diru-laguntzaren %80a jakinarazpena egiten den hilabetearen azkeneko egunean ordainduko da, eta honetarako ez zaie inongo bermerik eskatuko onuradunei. Gainerako %20a, eman deneko diru-laguntza justifikatu ondoren ordainduko da. Eta kontuan izango dira, halaber, 10. artikuluan aipatzen diren aspektu guztiak.

**Artículo 8.- Pago de la subvención**

Se procederá a tramitar el abono del 80% de la ayuda el último día del mes en el que se realice la notificación, no exigiéndose para ello garantía alguna a los beneficiarios. El 20% restante se abonará previa justificación tanto de la aplicación de la ayuda recibida a la finalidad que justificó su concesión, como de los restantes aspectos descritos en el artículo 10.

**9. Artikulua. Betebeharrak**

Deialdi honetako dirulaguntzak jaso dituzten entitate onuradunek, Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikuluak ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte. Besteak beste, ondorengo hauek:

a) Diruz lagundutako jarduera egitea.

b) Jarduera egiten ari dela frogatzea. Orobat, laguntza emateko bete beharreko eskakizunak eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzea.

c) Diruz lagundutako jarduera betetzeko baimen guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea.

d) Diru-laguntza eskaini duen Durangoko Udalak egin beharreko egiaztatze-jarduketei trabarik ez jartzea, ez eta Esku-hartzailetzari dagozkion finantza-kontroleko jarduketei, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jarduketei edota eskumen hori duten bestelako organoen jarduketei ere. Horrez gain, laguntza eskainiko dute ikerketa-gai diren lokaletara sartzeko edota bertako dokumentazioa eskuratzeko askatasuna eskainiko dute, baita dokumentuen kopiak egiteko ere.

e) Diruz lagundutako jarduerari buruz, euskara edo euskara eta gaztelania erabiltzea argitaratutako iragarki, ohar,

**Artículo 9.- Obligaciones**

Las entidades beneficiarias de las ayudas objeto de la presente convocatoria deberán cumplir las obligaciones reguladas en el artículo 6º de la Ordenanza reguladora de subvenciones y ayudas del Ayuntamiento de Durango, entre otras:

a) Realizar la actividad subvencionada.

b) Acreditar la realización de la actividad, así como el cumplimiento de los requisitos y condiciones que determinen la concesión de la subvención.

c) Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para la realización de la actividad subvencionada y cumplir sus determinaciones.

d) El sometimiento a las actuaciones de comprobación a efectuar por el Ayuntamiento de Durango y a las de control financiero que corresponden a la Intervención y a las previstas en la legislación del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas u otros órganos que tengan atribuida dicha competencia. Asimismo, se encontrarán obligados a facilitar el libre acceso a los locales y a la documentación objeto de investigación, así como la posibilidad de obtener copia de aquélla.

e) Redactar y dar a conocer en euskera o en las dos lenguas oficiales los anuncios, avisos y demás comunicaciones que



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 12433161730307742674
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

jakinarazpen eta abarretan. Gainera, diruz lagundutako jardueran diharduela egiaztatzerakoan, hizkuntza-betebehar hori betetzen duela frogatu beharko du onuradunak.

publiquen en la actividad subvencionada, debiendo proceder de igual manera con la propaganda, sea oral o escrita. El cumplimiento de esta obligación deberá acreditase al justificar la realización de la actividad subvencionada.

**10. Artikulua. Dirulaguntza justifikatzea**

Justifikatu beharreko gastua ondorengo formulatik aterako da: aurrekontu osoa depuratua bider emandako dirulaguntza zati eskatutako dirulaguntza depuratua. Justifikatu beharrekoa justifikatu ezik, proportzionaltasunaren araua aplikatuko da.

Dirulaguntza justifikatzeko, entitate edo pertsona onuradunak 2020ko otsailaren 28a azken eguna izanez, jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du:

a) Egindako jardueraren memoria, ahalik eta zehatzena. Bertan, diru-sarrerak eta gastuak erantsiko dira eta, halaber, aipatutako jarduerarako jasotako beste edozein dirulaguntza publiko zein pribatu ere. Jarduera bat baino gehiagorako laguntza eskatzen bada, denak egin beharko dira, bestela, egin gabe geratu den jarduerarako emandako dirulaguntza kopurua bueltatuko da.

b) Gastuaren egiaztagiri originalak. Dirulaguntza jaso duten helburu eta jarduera horiek (eskaeran adierazitakoak) gauzatzeko gastuen egiaztagiriak soilik eta horiek bakarrik aurkeztuko dira; esan nahi baita, ez direla onartuko beste edozein helburutarako egindako gastuen egiaztagiriak. Faktura eta egiaztagiriak diru laguntza deialdiaren urte berekoak izango dira. Formatu digitalean aurkeztuko dira.

c) Azterketa, programa, publikazio eta horma-irudi iragarleen ale bana. Halaber,

**Artículo 10.- Justificación de la ayuda**

La cantidad a justificar se obtendrá aplicando la siguiente fórmula: presupuesto total depurado multiplicado por la subvención concedida y dividido por la solicitud de subvención depurada. En el caso de no justificar el importe debido, se aplicará la regla de proporcionalidad.

Para la justificación de la subvención concedida, la entidad o persona beneficiaria deberá presentar, fijándose como último día el 28 de febrero de 2020, la documentación que a continuación se menciona:

f) Memoria de la actividad realizada, lo más detallada posible, con la relación final de ingresos y gastos. En la misma se deberá incluir cualquier otra subvención o ayuda, pública o privada, recibida para la actividad subvencionada. En caso de solicitar subvención para más de una actividad, se deberán realizar todas. En caso contrario se descontará la parte de subvención concedida para la/s citada/s actividad/es.

g) Justificantes originales del realizado. Los justificantes deberán corresponder necesaria y exclusivamente a los gastos ocasionados con el cumplimiento de los fines y actividades para los que se concedió la subvención según solicitud previa, debiendo aportarse facturas giradas a la asociación correspondientes al mismo año de la convocatoria de la subvención; no pudiendo admitirse como justificación los gastos realizados para el cumplimiento de fines distintos. Se presentarán en formato digital.

h) Un ejemplar de los estudios, programas, publicaciones, carteles anunciadores y



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 12433161730307742674
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

jardueraren inguruan sorturiko edozein eratako dokumentazio grafiko zein idatzizko. Euskarri guztietan Durangoko Udalaren babesa agertu beharko da. Formatu digitalean aurkeztuko dira.

cuanta documentación gráfica y escrita hayan sido elaborados en la actividad generada como consecuencia de la ayuda económica concedida. Se deberá incluir al Ayuntamiento de Durango como patrocinador en toda la publicidad realizada. Se presentarán en formato digital.

Fakturetan hauxe agertuko da:
- Erakundearen identifikazioa.
- Hornitzailearen identifikazioa.
- Fakturaren data.
- Jarduera.
- Zerbitzuaren deskripzioa.

En las facturas se indicarán:
- Identificación de la Entidad.
- Identificación del proveedor.
- Fecha de la factura.
- Actividad que origina el servicio.
- Descripción del servicio.

Ez dira onartuko:
- Elkarte barruko bazkariak, afariak, eta halakoak.

No se admitirán como justificantes:
- Costes de comidas de hermandad y similares.

**11. Artikulua. Dirua itzultzea**

Deialdi honetako 10. artikuluaren b) paragrafoak ezartzen duena betez, dirulaguntza eman deneko jardueraren gastuaren aurrekontuari dagokion gastua justifikatzen ez bada, dirulaguntza osoa edo zati bat eta dagokion berandutze-interesa itzuli beharko da, halaxe ezartzen baitu Durangoko Udalaren dirulaguntzen eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 16. artikuluak eta, betiere, Ordenantza bereko 17. artikuluak arautzen duen prozedura jarraituz.
Halaber, dirua itzultzeko zioak dira dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 36 eta 37 artikuluetan jasotako guztiak.

**Artículo 11.- Reintegro**

Procederá el reintegro total o parcial de la ayuda y del interés de demora correspondiente, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 16 de la Ordenanza Reguladora de Subvenciones vigente en el Ayuntamiento de Durango y siguiendo el procedimiento que regula el artículo 17, cuando no se justifique la realización del gasto equivalente al presupuesto de gasto de la actividad que sirvió de base para la concesión de la subvención, tal y como indica el artículo 10 párrafo b) de esta convocatoria.
Así mismo, serán causas de reintegro todas las previstas en los artículos 36 y 37 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

**12. Artikulua. Araudi osagarria**

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantzak ezartzen duena. Berau, BAOren 68 zenbakian argitaratu zen, 2004ko apirilaren 13an eta, gerora egindako aldaketa BAOren 148 zenbakian argitaratu zen, 2004ko abuztuaren 3an. Halaber, kontuan izango dira diru-laguntzak arautzen dituen, azaroaren 17ko, 38/2003 Legea eta

**Artículo 12.- Normativa completiva**

En lo no dispuesto en esta convocatoria se estará a la regulación contenida en la Ordenanza reguladora de subvenciones y ayudas del Ayuntamiento de Durango, publicada en el BOB núm. 68 de fecha 13 de Abril de 2004 y posterior modificación publicada en el BOB nº 148, de 3 de agosto de 2004 así como en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y el real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 12433161730307742674
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, 38/2003 Legearen araudia onartzen duena.

que se aprueba el Reglamento de la mencionada Ley 38/2003.

**KONTUAN IZANDA** aipatutako araudia bat datorrela Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantzarekin.

**CONSIDERANDO** que la mencionada normativa está de acuerdo con lo preceptuado en la Ordenanza Reguladora de Subvenciones y Ayudas del Ayuntamiento de Durango.

**KONTUAN IZANDA** aipatutako araudia bat datorrela azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrak ezartzen duenarekin.

**CONSIDERANDO** que la mencionada normativa está de acuerdo con lo preceptuado en la Ley 38/2003, de 17 de Noviembre, General del Subvenciones.

Aurrekontua betearazteko udal araudiko 30.4.C) eta 33 oinarriek ezartzen dutenarekin bat etorriz.

De acuerdo con lo preceptuado en las Bases 30.4.c), y 33 de la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuen 10/2003 Foru Aginduak ezartzen duenarekin bat etorriz, zeinaren bidez, eskumenak erregulatzen baitira gastu-fase ezberdinei dagokienez.

De acuerdo con lo indicado en el artículo 41 de la Norma Foral 10/2003 Presupuestaria de Entidades locales del Territorio Histórico de Bizkaia, por el que se regula la competencias en las diferentes fases del gasto.

Ikusirik badela aurrekonturik aipatutako dirulaguntza-programa aurrera eramateko, eta aipatutako 10/2003 Foru Aginduaren IV idazpuruak zehaztu duen kontu-hartzailetzak egin beharreko kontrola egin ostean.

Existiendo consignación presupuestaria para llevar adelante el programa de subvenciones descrito y habiéndose realizado el preceptivo control interventor descrito en el Título IV de la mencionada Norma Foral 10/2003.

## ERABAKI DUT

1. Deialdiko oinarriak onartzea.

2. Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 8.2 artikuluak eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 9.3 artikuluak ezartzen dutenarekin bat etorriz.

## HE RESUELTO

1. Aprobar las Bases de la Convocatoria.

2. Ordenar la publicación de la misma en el Boletín Oficial de Bizkaia, de acuerdo con lo indicado en los artículos 8.2 de la Ordenanza Reguladora de Subvenciones y Ayudas del Ayuntamiento de Durango y 9.3 de la Ley 38/2003 de la Ley General de Subvenciones.



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 12433161730307742674
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

3. Gastua onartzea A fasean, 10/2003 Foru Aginduaren 41.1 artikuluak eta aurrekontua betearazteko udal araudiaren 28. oinarriak ezartzen dutenaren babesean eta, beti ere, aintzat hartuta dirulaguntza programaren zenbatekoa eta aurrekontu-partida.

3. Autorizar el gasto en fase A al amparo de lo indicado en el artículo 41.1 de la Norma Foral 10/2003 y en la Base 28 de la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria de este Ayuntamiento, por el importe y en la partida que se indica en el texto del programa de subvención.

Alkateorde delegatuak agindu eta izenpetzen du, eta nik, Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek, egiaztatu egiten dut.

Lo manda y firma la Teniente de Alcaldesa delegada, de todo lo cual yo, Secretario General de la Corporación, doy fe.

Durango, 6 de Marzo de 2019

Olaia Albizu Gallastegi
Euskara, Kultura eta Hezkuntza batzordearen Presidentea
Presidenta de la comisión de Euskara, Cultura y Educación

Elektronikoki izenpeturiko agiria
Documento firmado electrónicamente

Durango, 5 de Marzo de 2019

Ramon Sorarrain Tolosa
Idazkaria - Secretario

Elektronikoki izenpeturiko agiria
Documento firmado electrónicamente



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 12433161730307742674
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**